

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 5 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 34 item. • Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ERREPIDEETAKO HILAK

Lehen errepide-istripuetako heriotza 1896ko abuztuaren 17an izan zen, Londresen. Abiadura-muga orduko sei kilometrokoa zen garai hartan Erresuma Batuan, baina horrek ez zuen eragotzi ezbeharra: 44 urteko emakumea, Bridget Driscoll, hil zen ibilgailu batek harrapatuta. 30 urte ziren lehen autoa sortu zutela. Historiako lehen istripua gertatu eta urte gutxira iritsi zen lehen autoa Euskal Herrira: 1901eko abuztuaren 10ean matrikulatu zuten Alfonso Pardo eta Manuel de Villena aristokratek, eta orduko 40 kilometroko abiadurara iristen zen.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, azken zazpi urteotan gorabeherak izan ditu hildakoen kopuruak, baina agerian dago gero eta gutxiago hiltzen direla. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 1990eko hamarkadaren hasieran jo zuen goia eta, harrezkeroztik, beheranzko bidea hartu du, salbuespenak salbuespen. 1990. eta 1992. urteen artean izan zen hildako gehien errepide-istripuetan. Hildako gutxien iaz izan zen: 39, 2016an baino hamabost gutxiago. Lurralde historikoka, Arabako errepideetan bederatzi pertsona hil ziren; Bizkaikoetan, zortzi; eta Gipuzkoakoetan, hogeita bi. Eusko Jaurlaritzako Trafiko zuzendariaren iritziz, joera «sendotzen» ari da, eta hori erakusten dute datuek. «Urtez urte, beherantz doaz hildakoak, eta hori pozteko modukoa da. Orain kopuru apaletan mugitzen gara, eta joerari eustea zailagoa da, baina pozik gaude lortutakoarekin. Dena den, oraindik ez dira bukatu gure egin beharrekoak eta plan estrategiko bat dugu martxan». Helburu argia du Eusko Jaurlaritzak, Europan finkaturiko kopuruetara iristea: «2010. urtean zenbat hil ziren oinarri hartuta, hildakoen kopurua erdira jaistea 2020. urterako».

Datuak aztertuz gero, bi beherakada izan dira nabarmen: 1992. urtean hasi zena eta, handiena, 2004. urtetik aurrerakoa.

Hiriguneetan segurtasun-uhala jartzea derrigorrezkoa bilakatu zen 1992. urtean, errepideetan bazen 1974tik, eta horrek eragina izan zuen hildakoen kopuruan, lehen aldiz beheranzko joera nabarmena eragin baitzuen. Hamarkada batez hildakoen kopurua egonkor mantendu ostean, 2004an hasi zen beherakadarik handiena, puntukako gidabaimena iragarri zutenetik.

Biktima-kopuruak zein hildakoak eta zaurituak, eta biktimak izan diren istripuen kopuruak ez dute aldaketa handirik izan 2004. urtean egin zuten beheranzko joeraren ondoren. Eta hildakoen kopurua beherantz ari dela kontuan harturik, ondorioa argia da: biktimen artean gero eta gehiago dira zauritzen direnak eta gutxiago hiltzen direnak. Biktima motei dagokienez: hildakoen % 59 gidariak ziren —% 30 motoetakoak, eta % 70 autoetakoak—, % 23 bidaiariak eta % 18 oinezkoak. Istripu motari dagokionez, erdiak baino pixka bat gehiago, % 51, bi ibilgailuk elkar jota gertatu ziren; % 31 bidetik aterata, eta % 18 oinezko bat harrapatuta. Moto-gidariak, txirindulariak eta oinezkoak dira «talde ahulak» errepideetan, eta horiekin elkarlana sustatzen ari da Jaurlaritza, segurtasuna areagotzeko.

Mugikortasuna sexuaren arabera aztertzean, agerian geratzen da gizonen eta emakumeen aukerak desberdinak direla. Emakumeek ibilgailu pribatua gutxiago aukeratzen dute, baina gizonen lehen aukera da ia beti. Gizonek bidaia gehiago egiten dituzte ibilgailu pribatua gidatuz; eta joan-etorri gehienak garraio publikoa erabiliz edo oinez egiten dituzten emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa da. Gero eta emakume gehiagok dute gidabaimena, nahiz eta oraindik gizonak baino gutxiago diren. Baina gorakada horrek ez du eraginik izan hildakoen zenbakian, gizonak gehiago baitira oraindik ere hildakoen

artean. Lehen baino emakume gehiago daude errepideetan, baina istripuetan hildako emakumeen kopurua ez da handitu. Egutero egiten dituzten bidaia-kopuruetan ere ageri da gizon eta emakumeen arteko banaketa: emakumeak seme-alabez eta etxeko lanez askoz gehiago

arduratzten direnez, bidaia gehiago egin behar dituzte egunean, horietako asko oinez edo garraio publikoan.

PEREZ, A. Berria. 2018ko urtarrilaren 21ean. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Noiz gertatu zen lehen errepide-istripuetako heriotza?

- a) Abiadura-muga orduko sei kilometro baino handiagoa zenean.
- b) Autoa sortu zenetik hogeita hamar urte pasa ondoren.
- c) Pasa den mendearen hasieran, Londreseko errepide batean.

2. Zer dio testuak hildakoen kopuruez?

- a) Krisiak ez duela inolako eraginik.
- b) 1990. urtean kopururik txikiena izan zela.
- c) Beranzko joera dagoela azken urteotan.

3. Zer uste du Trafiko zuzendariak?

- a) Gauzak aldatu beharra dagoela, datuak apalak baitira.
- b) Hildakoak badaude, ezin direla pozik egon.
- c) Lortutakoa mantentzea zaila izango dela.

4. Zer helburu du Eusko Jaurlaritzak?

- a) Europako datuetatik gertu egotea.
- b) Plan estrategikoa berrantolatzea.
- c) 2020an zero heriotza lortzea.

5. Noiztik eman da beherakada handiena?

- a) Segurtasun-uhala hiriguneetan derrigorrezkoa denetik.
- b) Puntukako gidabaimena martxan jarri dutenetik.
- c) 1974tik, errepideetan segurtasuna handitu zutenetik.

6. Zer gertatzen da biktimekin?

- a) Azken hamarkadan ez da aldaketa handirik egon kopuruetan.
- b) Gero eta gehiago dira hiltzen direnak zauritzen direnak baino.
- c) Hildakoen kopurua etengabe ari da gora azken urteotan.

7. Estatistiken arabera, nork dauka hiltzeko arriskurik handiena istripu batean?

- a) Oinezkoak errepidea gurutzatzean.
- b) Bidetik atera den moto-gidariak.
- c) Beste auto baten kontra talka egin duen auto-gidariak.

8. Zer dio testuak gidabaimena duten emakumeen gorakadaz?

- a) Emakume gidari gehiago egon ahala hildakoak gehiago direla.
- b) Emakume hildakoen zifretan ez dela islatzen.
- c) Hildakoen zenbakietan laster izango duela eragina.

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsunak (9, 10, 11...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

ABDOMINOPLASTIA: KIRURGIA SABELALDEAN

Haurdunaldiek, pisu gorabeherak eta sabelaldeko giharrak lasaitzeak, besteak beste, kalte egin ahal diote sabelaldearen itxura estetikoari. Egoera hori lehengoratzeko, beti ez da nahikoa izaten ariketa fisikoa egitea eta dieta orekatu bati jarraitzea. Zenbaitetan, abdominoplastiak, sabelaldeko kirurgiak eman ahal dio konponbidea arazo horri. **9**

Kirurgia Plastiko, Konpontzaile eta Estetikoaren Espainiako Elkartearen arabera (SECPRE), sabelaldearen itxura hobetzea izaten da prozedura kirurgiko horren helburua. Horretarako, anestesia orokorra edo epidurala jarri behar izaten zaio pazienteari, nahiz eta kasu batzuetan, adibidez, mini-abdominoplastian eta sabelaldeko liposukzioan, tokiko anestesia eta sedazioa ere erabil daitezkeen. Ebakuntza bi ordutik lau ordura bitartekoa izaten da.

10 Gero, larruazala bereizi egiten da sabelaldeko paretatik gorantz, saihests hezurretarraino, eta agerian uzten dira sabelaldeko giharrak. Gihar horiek tenkatu egingo dira eta erdiko lerroari elkartuko zaizkio, eta horrela lortuko da sabelaldeko paretaren sendotzea eta gerrialdea estutzea. Zilborra oso behera eginda gelditu daitekeenez, bere lekuan jarri behar izaten da gero. Bukatzean josi egiten da inguru hori eta benda batzuk jartzen dira.

11

Bi teknika horien bidezko edozein ebakuntza operazio-gelan egin behar da. **12**

Jostura puntuak 2 edo 3 aste pasatu ondoren kentzen dituzte. Ebakuntza egin ondoren, apositu eta benda elastikoak jar daitezke ebakien gainean. **13** Gehien-gehienetan, bi aste behar izaten dira osatzeko.

Abdominoplastiak kendu egiten du sabelaldean sobera dagoen larruazala eta gantza, eta zuzendu egiten du giharren biguntasuna.

14 Kirurgia horren bidez, sabelalde sendoagoa lortu nahi izaten da, eta gerrialde estuagoa. Baina nori egin ahal zaio gisa horretako ebakuntza bat? Fisikoki osasuntsu dagoen pertsona bati, pisuari egonkor eusten dionari eta emaitza errealistak espero dituenari.

15

Arriskuak eta konplikazioak gero eta urriagoak dira, baina prozedura kirurgiko guztiak bezala, hau ere ez da arriskurik gabea. Abdominoplastiaren kasuan kirurgialariaren esperientzia faltari lotuta etor daitezkeen arazoak saihesteko, espezialista on baten eskuetan jartzea da onena. SECPRE erakundekoek nabarmen dute ziurtatu egin behar dela profesionalak baduela beharrezko titulu ofizial eta homologatua: Kirurgia Plastiko, Estetiko eta Konpontzaileko mediku espezialista izan behar du. **16**

Antibiotikoak eta drainatze-sistemak erabiltzen dira infekzioetarako, eta tronboetarako komeni da ohetik jaiki eta ahal bezain azkar hastera oinez ibiltzen. Abdominoplastiak berak dituen arrisku espezifikoei dagokienez, honako hauek aipa daitezke: larruazaleko nekrosia, likidoa metatzea larruazalaren eta giharretako paretaren artean, gorabeherak izatea orbaintzeko prozesuan, zilborraren itxura oso estetikoak ez izatea eta kalte egitea gune horretako larruazalaren sentiberatasunari.

2. ariketa. Txertatu testu zatia

- A. Osatze-prozesuan sabelaldea bermatzea da helburua; sabelaldean konpresioa egingo duen gerriko zabalaz jartzeko gomendioa ere eman daiteke.
- B. Gainera, beste ebakuntza batzuetan bezala, honetan ere badago arriskua anestesian edo pazienteak infekzio bat edo tronbo bat izateko posibilitatean.
- C. Aldaka batetik bestera pubisaren gainean egindako ebaki batez eta zilborraren inguruko beste ebaki batez kentzen da soberako larruzala eta gantza.
- D. Ohiko ebakuntza estetiko gehien artean, abdominoplastiarena garestiena izaten da, batez ere, erabili behar diren materialen kostuengatik.
- E. Horretaz gain, erretzen ez duen pertsona izan behar da edo, behintzat, erretzeari uzteko gai dena kirurgialariak esaten dionean.
- F. Hala ere, garrantzitsua da jakitea zer den zehazki abdominoplastia, nork egin dezakeen eta zer gomendio hartu behar diren ebakuntzaren ondoren.
- G. Pazientea ospitaleratu egin behar izaten da bi egunerako gutxi gorabehera, eta tarte horretan oinez ibili beharko du, modua ikusi bezain azkar.
- H. Hori, nagusiki, pisu igoera handia izan eta ondoren argaldu egin diren pertsonetan agertzen da, eta haurdunaldi bat baino gehiago izan duten emakumeetan.
- I. Mini-abdominoplastia egiten denean, berriz, ebakiaren eta zilborraren artean bakarrik bereizten da larruzala, sobera gelditu dena kendu eta josi egiten da.

■ **Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:**

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

Soberakoa	
------------------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orriran.

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ETXEAK ERABERRITU ETA JENDEZ BETETZEKO PLANA ABIAN

Egoera txarrean dauden etxeetako obrak finantzatuko ditu Tolosako Udalak, gero alokairuan merkaturatu ahal izateko. Tolosan zazpiehun etxebizitza huts daude gaur egun, eta hori herriko etxebizitza-parke osoaren % 9 da. **17**, Tolosako Udalak egitasmo hau prestatu du, egoera txarrean dauden etxeak eraberritzeko, batetik, eta etxe horiek guztiak **18** betetzeko, bestetik.

laz martxan jarri zuten alokairu sistemaren ondorio da etxebizitza-plan berria, Tolosako alkateak azaldu zuenez: «Bigarren etxebizitzak zituzten herritarrei **19** eman genien etxe horiek alokairuan jartzeko, udalarekin **20** bat sinatuz». Programari ekiterakoan, izena eman zuten herritarren etxebizitzetan **21** egin zituzten udal-teknikariak, eta etxe asko egoera txarrean zeudela egiazatu zuten. Etxe-jabe horien arazo nagusia eraberritze-lanen aurrekontua zen eta, horregatik, etxea horrela utzi eta alokairuan ez jartzea erabaki zuten gehienek.

Egitasmo berriak arazo horri **22** eman nahi dio, egoera txarrean dauden etxebizitzetako eraberritzeak finantzatuz, alokairu-eskaintzaren truke. **23** zenbait baldintza bete beharko dituzte programan parte hartu nahi duten jabeek: etxe hutsen eroldan egon beharko dute etxeak eta, ondoren, izena emandakoan, udal-teknikariak egin beharreko lanak begiratuko dituzte, aurrekontua **24**.

Behin aurrekontu hori jakinda, Udalak finantzatuko du obra, eta etxe hori alokairuan jartzerakoan, alokairu horren **25** amortizatuko du gastua: «Udalak obraren gastua amortizatu arte, jabeak udalaren esku utzi beharko du etxebizitza. Amortizazioa **26** denean, ordea, Udalak egoera onean itzuliko dio etxea jabeari».

Aipatzekoa da, arautegia idatzi duten arren, oraindik ere ixteko dagoela eta bilera ireki bat egin nahi dutela **27** izango luketen jabeekin. Martxoaren 30ean izango da bilkura pleno-aretoan; ekarpenak eta iradokizunak **28** nahi dituzte, arautegia osatu eta hurrengo osoko bilkuran **29**.

Udal-teknikari bat izango da etxebizitza-plan berriaren arduraduna eta arautegian muga ekonomiko bat **30** dute jada: lau mila euroko gehienezko finantzazioa eskainiko du Udalak: «Jakitun gara zenbaitetan eraberritzeak kostu handiagoa izango duela, baina, hala ere, gehiena Udalak ordainduko du».

Tolosako Udalak hiru helburu bete nahi ditu honen bitartez: etxe hutsak betetzea, alokairua sustatzea eta etxebizitza parkea **31**. Horrela, aukera berritzailea dela nabarmendu dute, izan ere, gaur egun alokairuan bizitzeko dauden **32** artean halakorik ez da hitzartu oraindik. «www.tolosa.eus» atarian izen-ematea nahiz informazioa **33** izango da eta lehen aipaturiko bileran erabakiko dituzte arautegiko xehetasunak: «Beti esan dugu zerga batzuk igotzearen helburua ez zela dirua **34**, gerora inbertsioak egitea baizik, eta hauxe da hauetako bat», berretsi du alkateak.

URKIZU, I. Tolosaldeko ataria. 2015eko martxoaren 6a. Egokitua

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

17. a) Ordea
b) Gauzak horrela
c) Dena den
d) Bestela

18. a) bizilagunez
b) erakusleez
c) ekoizleez
d) lehiakideez

19. a) arreta
b) aurkibidea
c) aukera
d) araua

20. a) luzapen
b) hitzarmen
c) oroimen
d) laburpen

21. a) aitortzak
b) ikuskaritzak
c) ordezkariak
d) ezagutzak

22. a) irtenbidea
b) baliabidea
c) pasabidea
d) sendabidea

23. a) Horren bidez
b) Harrezkero
c) Horretarako
d) Hala ere

24. a) trukatu
b) baztertuz
c) berrituz
d) adostuz

25. a) ordez
b) partez
c) ondorioz
d) bitartez

26. a) gauzatzeko
b) sustatzeko
c) alderatzeko
d) ordezkatzeko

27. a) harrera
b) iraupena
c) interesa
d) gabezia

28. a) miatu
b) urratu
c) eraiki
d) jaso

29. a) onartzeko
b) arakatzeko
c) gainditzeko
d) babesteko

30. a) ukatu
b) atzeratu
c) zehaztu
d) kokatu

31. a) egokitzea
b) gogortzea
c) atontzea
d) aldentzea

32. a) eragozpen
b) eskaintzen
c) ondasunen
d) burutazioen

33. a) erabakigarri
b) jasagarri
c) eskuragarri
d) gogoangarri

34. a) itzultzea
b) biltzea
c) sortzea
d) xahutzea

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Administrazio langilea zara. Zure erakundeak intranet bat (langileentzako webgunea) estreinatu berri du langileei hainbat zerbitzu eskaintzeko: trebakuntza, etorri berrientzako informazioa, jantokiko txandak, foroak ... Baina, oraindik zerbitzu batzuk falta dira, eta beste batzuk ez dabilta ondo.

Idatz iezaiozu eskutitza zure arduradunari zer gertatzen den azaltzeko, eta konponbidea proposatzeko.

2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldzkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Herrian dagoen supermerkatu batek bertan gasolindegi bat jartzeko baimena eskatu dio Udalari eta horrek eztabaida piztu du herritarren artean. Batzuek, erosotasunagatik eta prezioagatik, begi onez ikusten dute; baina ez dira gutxi, ziurtasun-arazoengatik, jartzearen kontra daudenak.

Gaiaren garrantziaz jabetuta, herriko aldzkarian iritzia ematea erabaki duzu.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa.** Aukeratu erantzuna
- **Irakurgaia:** «ERREPIDEETAKO HILAK»

1.	B	2.	C	3.	C
4.	A	5.	B	6.	A
7.	C	8.	B		

- **2. ariketa.** Sartu testu zatia dagokion hutsunean
- **Irakurgaia:** «ABDOMINOPLASTIA: KIRURGIA SABELALDEAN»

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	F	C	I	G	A	H	E	B

Soberakoa	D
-----------	---

- **3. ariketa.** Hutsuneak bete
- **Irakurgaia:** «ETXEAK ERABERRITU ETA JENDEZ BETETZEKO PLANA ABIAN»

17.	B	18.	A	19.	C
20.	B	21.	B	22.	A
23.	C	24.	D	25.	D
26.	A	27.	C	28.	D
29.	A	30.	C	31.	A
32.	B	33.	C	34.	B